

Bartolo eta hartza

Behin batean, Altsasuko mutil bat San Pedroko mendira joan zen, gorostiaren adarrak biltzera. Bere izena, Bartolo zen.

Negua zen eta lurrean elur asko zegoen. Mendian zebilela, leize batean erori zen. Leizea sakona eta Iluna zen.

Mutila orbelaren gainean erori zen hartz baten ondoan, gaitzerdi. Hartza negu pasa, lo egiten ari zen.

Bartolok Kasianoren trikitixa aurkitu zuen. Trikitixa hori aspaldian herriko apaizak leizean bota zuen, gazteek enparantzan ez dantzatzeko.

Inork ez zekien Bartolo non zegoen eta baso osoan bilatu arren, ez zuten aurkitu eta pentsatu zuten hilik zegoela.

Bartolok ezin zuen leizetik irten eta horregatik elikatzeko, hartzaren gaztainak jan behar zituen.

Denbora pasatzeko, Bartolok gauero, trikitixa jotzen zuen. Gero, nekatuta, hartz iletsu, biguin eta beroaren ondoan, lo hartzen zuen. Baserritarrek doinu hori entzun zutenean infernuko hauspoa eta Kasianoren arima zirela uste zuten.

Udaberria iritsi zenean, hartza esnatu zen eta irteerako ateko harria kendu zuen. Harria oso handia zen baina hartza Perurena baino sendoagoa zen.

Leizearen ondoan urdiaintar bat zegoen zizen bila. Eta bapatean Bartola ikusi zuen. Bartola ikusi zuenean izututa gelditu zen eta lasterka herrira joan zen. Basajaun eta dinosaurio bat ikusi zituela esaten zuen. Urdiaindarrak eskopetarekin etorri ziren eta Satrustegi

apaiza isopoarekin gentil bat izango zelakoan. Altsasuarrak Bartolo ikusi zutenean oso alai jarri ziren.

Geroztik auzo zaharreko auzokideek Maiatzaren lehen igandean festa handia ospatzen dute. Kalez-kale dantzatzen dute Kasianoaren trikitixarekin eta taloak txistoarrarekin jaten dituzte.

Egileak: Lydia Esain
Marisol Berasategi
Aingeru Suarez
Roberto Estarriaga